

ERABAKIA, 2016ko ekainaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, 2016ko apirilaren 15eko Gerentearen erabaki bidez deitutako "SGIkerreko goi mailako teknikaria -Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Biomedikuntzan" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin-behineko zerrenda onartzeko eta prozesu hori zuzenduko duten epaimahaikideak izendatzeko dena.

Gerentearen 2016ko apirilaren 15eko erabaki bidez "SGIkerreko goi mailako teknikaria -Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Biomedikuntzan" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

Laugarren oinarriko lehenengo atalean zehaztutakoari jarraiki, UPV/EHUko gerenteak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko erabakia emango du, baztertutakoen kasuan, kanpoan uzteko zioa azalduta.

Bestalde, bosgarren oinarrian zehaztutakoari jarraiki, deialdia zuzenduko duen epaimahaiaren osaera argitara emango da onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendarekin.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- "SGIkerreko goi mailako teknikaria -Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Biomedikuntzan" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko erantsitako zerrenda onartzea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

Bigarrena.- "SGIkerreko goi mailako teknikaria -Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Biomedikuntzan" izeneko lan-poltsa handitzeko prozesuko hautaketa-probetako epaimahaiko kide titularrak eta ordezkioak izendatzea:

	Titularra	Ordezkoa
Epaimahaiburua:	Fernando Plazaola Muguruza	Maribel Arriortua Marcaida
Epaimahaikideak:	Manuel José Gayoso Rodríguez	M ^a Elena REbollo Arredondo
Idazkaria:	Iñaki Echevarria Machado	José Manuel Nicolau Expósito

Hirugarrena.- Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian (<http://www.ehu.eus/eu/web/azp/deialdiak>) argitaratzeko agindua ematea.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Laugarrena.- 4.1 oinarri orokorrean zehaztutakoaren arabera, bost egun balioduneko epea ezartzea onartutakoen eta baztertutakoen zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko, edo, hala dagokionean, baztertzea eragin duen arrazoia zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan baztertzea – edo, hala dagokionean, zerrendetako batean ere ez agertzea – eragin duen akatsa egiaztagiri bidez zuzentzen ez duten hautagaiek onartutakoen zerrendan sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

Leioan, 2016ko ekainaren 20an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché

